

**2019ko urtarrilaren 30an ,UDALBATZAK egindako bilkura arruntaren AKTA. 1**

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19,30tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate andreak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

**LEHENDAKARIA:** Nekane Arrizabalaga  
**ZINEGOTZIAK :** Asier Ibarguren  
Arkaitz Iruretagoiena  
Igor Iturain  
Sergio Cubero  
Jon Ander Azpiroz  
Hodeiza Sallen eta  
Eñaut Guruzeaga  
Aitor Arregi eta Kontxi Lazkano

**Mariaje Arruabarrena ez zen bertaratu.**

**Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa**

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

**1.- Aktaren onarpena**

2018ko urriaren 10ean eginiko Udalbatzarraren Akta ontzat emanda denen aldetik.

**2.- 2019. Urterako udal Aurrekontuak onartzea**

2019. urtean indarrean egongo diren aurrekontuak azaldu ditu Alkateak . Aurrekontu bateratuak jasotzen ditu, alde batetik Udalaren aurrekontuak eta, bestaldetik, Aia-Lantzen enpresarenak.

Alkateak adierazi du, mahai gainean dagoen dokumentuak ez duela aldaketarik izan eta lehen egindako proposamenak jarraitzen duela indarrean, nahiz eta onartzen duten euskera ikasteak duen laguntzaek epe mugarik ez izatea.

Aurrekontuen inbertsionetako ekintza nagusiak azaldu ditu puntuz puntu.

Eñautek, Bilduren izenean, esan du euren eskakizunak ez direla kontuan hartu eta horregaitik aurkakoa izango dela botoa.

Eskakizunak: Urdanetako parkina , etxebizitza hutsen azterketa batean oinarritu eta merkaturatzea hutsik dauden etxebizitzak; Autobusaren ordutegiaren aldaketa estrukturala eta Armendi-gaineko eskailerak.

Idazkariak, 2/2012 lege Organikoak,- aurrekontuen egonkortasunaren ingurukoa denak-, administrazio publikoen aurrekontuei eskatzen dizkien eskakizunen berri eman eta gero azaldu du udal aurrekontuek 3 eskakizunetatik 3-rak betetzen dituztela, batetik, aurrekontuaren egonkortasunarena , bestetik, jasangarritasun finantzioarena , eta baita era gastuen muga ez gainditzearena.

Tramitazioari dagokionez Idazkariak azaltzen du hasierako onarpen hau jendaurrean jarriko dela 15 lanegunez. Eta ondoren erreklamazio ezean akordioa behin-betiko bihurtuko dela espreski beste akordiorik gabe. Eta azkenik Aurrekontuaren laburpena eta Lanpostu Zerrenda G.A.O.n argitaratuko direla (Udal Aurrekontuen 21/2003 Foru Araua).

Alkatearen proposamena botatu eta aldeko 6 boturekin ( Bilduko zinegotzien kontrako 4 botu) , beraz, beharrezko gehiengoarekin, erabaki da:

**1.- 2019.urterako Aurrekontu Bateratuari hasierako onarpena ematea, ( eranskinean jasota dagoena ) eta**

**2.- Jendaurrean jartzea**

**3.- Eskari-galderak**

Kontxik , baserri inguruetan fibra optikoa jartzeko egiten ari diren ekintzetaz galdetu du.

**Bilera, 19,45tan bukatu da, eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, Idazkariak hau ematen du, Aian 2019ko urtarrilaren 30an.**

**IDAZKARI -KONTUHARTZAILEAK**